ZERBITZUAK PROZEDURA SINPLIFIKATU BIDEZ
KONTRATATZEKO ADMINISTRAZIO-KLAUSULA ZEHATZEN
PLEGUA

I. ATALA
PROZEDURA SINPLIFIKATUETAN LIZITAZIOA, ESLEIPENA ETA FORMALIZAZIOA

I. KONTRATUAREN ELEMENTUAK.

1. Kontratuaren xedea.

2. Araubide juridikoa.

3. Gai hauei buruzko informazioa: zergak, ingurumena, emakumeen eta gizonen berdintasuna, enpleguaren babesa, lan-baldintzak, lan-arriskuen prebentzioa eta desgaitasuna duten pertsonen gizarteratzea eta laneratzea, desgaitasuna duten pertsonen kopuru edo ehuneko zehatz bat kontratatzeko betebeharra, eta datuen babesa.

4. Kontratuaren zatiak.

A) Administrazio kontratatzailea

B) Kontratista

5. Kontratuaren balio zenbatetsia eta kontratuaren lizitazio-aurrekontua.

6. Aurrekontu-kreditua izatea.

7. Kontratuaren iraupena eta luzapena.

8. Kontratazio-espedientea izapidetzea.

II. LIZITAZIOA.

9. Esleitzeko prozedura.

10. Lizitazioaren publizitatea.

11. Printzipioak: berdintasuna, gardentasuna, publizitatea, informazioa eta konfidentzialtasuna.

12. Parte hartzeko baldintzak.

13. Proposamenak aurkezteko modua eta epea.

14. Aurkeztu beharreko agiriak.

15. Dokumentazioa aurkezteari buruzko argibide-oharrak.

16. Enpresa lizitatzailearen ondorengotza prozeduran

III. PROPOSAMENAK IREKITZEA ETA EBALUATZEA.

17. Kontratazio-Mahaia

18. Kontratazio-Mahaiaren jarduna

a) A kartazala irekitzea

b) B kartazalaren irekitze publikoa

c) Eskaintze ebaluazioa eta adjudikazio-proposamena

d) Kontratazio Mahaiaren egintzen emaitzen publizitatea.

IDAZKARITZA
Musika plaza s/n 48700 Ondarroa. Tf. 94 683 36 74, Fax 94 683 36 75, ketxeberria@ondarroa.eus

Testu honen jatorrizkoa euskaraz idatzia da; beraz, euskarazko eta gaztelaniazko bertsioen artean interpretazio-auzirik sortuz gero, hori hartuko da aintzat.

19. Balio anormalak edo neurriz kanpokoak dituzten eskaintzak.
20. Berdinketa hausteko irizpideak.
IV. ESKAINTZEN SAILKAPENA, ADJUDIKAZIO-PROPOSAMENA ETA GAUZATZEA.
21. Sailkapena eta esleipen-proposamena
22. Esleipenaren aurretik aurkeztu beharreko dokumentazioa.

II. ATALA

ZERBITZU-KONTRATUEN ONDOREAK, BETETZEA ETA AZKENTZEA

23. Esleipena
24. Kontratua.
25. Kontratua formalizatzea.
26. Formalizatzeko epea.
27. Ez formalizatzearen ondorioak
28. Aseguruak.
V. KONTRATUA GAUZATZEA
29. Lanen hasiera.
30. Kontratuaren arduraduna.
31.- lan-programa
32. Kontratua betetzea.
33. Ez-betetze partziala edo betetze akastuna eta zigorrak.
34. Epea betetzea eta atzerapenagatiko zigorrak.
35. Prezioa ordaintzea.
36. Faktura elektronikoa.
37. Prezioak berrikustea.
38. Lan- eta gizarte-betebeharrak.
39. Baliabide materialak eta giza baliabideak.
40. Gauzatzeko hizkuntza-baldintzak.
41. Betearazteko baldintza bereziak.
42. Konfidentzialtasuna.
43. Lanen jabetza.
VI. KONTRATUAK ALDATZEA ETA ETETEA
44. Kontratua aldatzea.
45. Kontratua etetea.
VII. Kontratuen lagapena eta azpikontratazioa
46. Kontratuak lagatzea.
47. Azpikontratazioa.
VIII.- KONTRATUA AMAITZEA

48. Kontratua betetzea.

49. Berme-epea.

50. Bermeak itzultzea eta ezereztea.

51. Kontratua suntsiaraztea.

IX. DATU PERTSONALEN TRATAMENDURAKO NEURRI TEKNIKOAK, ADMINISTRATIBOAK ETA ANTOLAKUNTZAKOAK

52. Datuak babestea.

X.ADMINISTRAZIO-PRERROGATIBOAK eta errekurtsoak

53. Administrazioaren prerrogatibak.

54. Kontratazio-arloko errekurtso berezia.

55. Berraztertzeko errekurtsoa.

I. ATALA

PROZEDURA SINPLIFIKATUETAN LIZITAZIOA, ESLEIPENA ETA FORMALIZAZIOA

I. KONTRATUAREN OSAGAIAK.

1. Kontratuaren xedea.

Kontratuaren xedea Administrazioak onetsitako eta baldintza-agiriaren Karatulan jasotako proiektuan agertzen diren zerbitzuak gauzatzea da.

Kontratua osatzen duten plegu honetan eta Baldintza Teknikoen Agirian agertzen diren baldintzetara egokituko da prestazioa.

Baldintza-agiriaren Karatulan hala baimentzen bada, lizitatzaileek betekizun eta baldintza horiei dagozkien aldaerak aplikatu ahalko dituzte, puntu horretan zehaztutako gehieneko kopuruan.

Kontratua lotetan banatua bada, lote bakoitza izango da unitate funtzionala eta modu independientean gauzatu daiteke. Lote bakoitza, gainera, banaka ere esleitu ahal izango da.

2. Araubide juridikoa.

Kontratuak administrazio-izaera du eta honakoak bete beharko ditu:

- Agiri honetan jasotako klausulak, karatulako zehaztapenekin eta baldintza teknikoen agiriarekin bat datozenak.
- 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena (SPKL).
- Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Araudi Orokorra onesten duen urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretua (HAKLAO).
- Sektore Publikoko Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legearen zati bat garatzen duen 817/2009 Errege Dekretua.
- 2016/679 (EB) Erregelamendua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2016ko apirilaren 27koa, datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoak babesteari eta datu horien zirkulazio askeari buruzkoa eta 95/46/EE Zuzentaraua (Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra) indargabetzen duena.
- 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzkoa
- Kontratazioa arautzen duten gainerako xedapenak, estatu mailan, autonomia erkidegoan nahiz herrian, baldin eta tokiko eremuan aplika badaitezke.
- Osagarri gisa, Administrazio Zuzenbidearen gainerako arauak aplikatuko dira, eta horiek ezean, Zuzenbide Pribatuko arauak.

Kontratuaren, bere eranskinen edo jarraibideen eta Administrazioak emandako baldintza-agirien edo arauen baldintzaren bat ez jakiteak, itundutakoa gauzatzeko aplika badaiteke, ez du enpresaria hori betetzetik salbuetsiko.

Baldintza-agiri honetan eta Agindu Teknikoen Agirian ezarritakoaren artean alderik badago, baldintza-agiri honetan xedatutakoa hartu beharko da kontuan, izaera teknikoko gai eta zehaztapenetan salbu.

3. Gai hauei buruzko informazioa: zerga, ingurumena, emakumeen eta gizonen berdintasuna, enpleguaren babesa, lan-baldintzak, lan-arriskuen prebentzioa eta desgaitasuna duten pertsonen gizarteratzea eta laneratzea, desgaitasuna duten pertsonen kopuru edo ehuneko zehatz bat kontratatzeko betebeharra, eta datuen babesa (129. artikulua).

Erakunde hauetan, honako hauei buruz indarrean dauden betebeharrei eta xedapenei buruzko informazioa lor daiteke:

• Emakumeen eta gizonen berdintasuna: Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundea erakunde autonomoa.
• Fiskalitatea: Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako lurralde historikoetako eta Nafarroako Foru Komunitateko foru-ogasunak, eta Zerga Administrazioko Estatu Agentzia.

• Ingurumenaren babesa: IHOBE sozietate publikoa.
• Enplegua babestea, lan-baldintzak, lan-arriskuen prebentzioa: lan eta Justizia Saileko Laneko eta Gizarte Segurantzako Zuzendaritza eta Osalan Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea.
• Desgaitasuna duten pertsonen gizarteratzea eta laneratzea, eta desgaitasuna duten pertsonen kopuru edo ehuneko zehatz bat kontratatzeko betebeharra: Lanbide erakunde autonomoa.
• Datuen babesa: datuak Babesteko Euskal Bulegoa.

4. Kontratuaren zatiak.
A) Administrazio kontratugilea.

Kontratatzeko eskumena.- Kontratazio-organoa baldintza-agiri honetako karatulan adierazitakoa izango da.

Kontratuaren arduraduna.- Baldintza-agiri honen Karatulan adierazitakoa (halakorik badago) edo kontratazio-organoak kontratua betetzeko zehatz dezakeena.

Kontratugilearen profila.- Baldintza-agiri honen Karatulan adierazitakoa.

Erakundearen webgunetik jo daiteke profilera eta bertan jasotzen dira kontratazio-organoaren jarduerari buruzko datuak eta informazioa.

B) Kontratista.

Kontratatzeko gaitasuna.- Ondarroako Udalerako kontratatu ahalko dira Espainiako edo atzerriko pertsona natural edo juridikoak, jarduteko gaitasun osoa badute, kontratatzeko debekurik ez badute eta kaudimen ekonomiko, finantzario eta tekniko edo profesionala egiaztatzen badute, edo SPKLn hala eskatzen den kasuetan, behar bezala sailkatuta badaude. Era berean, kontratu honen xede den jarduera edo prestazioa egiteko eska daitekeen enpresa-gaitasuna edo gaitasun profesionala izan beharko dute enpresariek.

a) Pertsona juridikoak: kontratuen adjudikaziodun izan ahalko dira, baldin eta kontratuko prestazioak erakundearen berezko helburu, xede edo jarduera-eremukoak baldin badira, estatutuetan edo fundazio-arauetan ezarritakoaren arabera.

b) Espainiarrak ez baina Europar Batasuneko estatu-kideetakoak diren enpresariak: kontratatzeko gaitasuna izango dute, baldin eta beren Estatuko legediaren arabera dagokien prestazioa emateko gaituta badaude.

c) Enpresarien elkarteak: Ondarroako Udalerako kontratatu ahalko dira kontratua betetzeko eratzen diren aldi baterako enpresarien elkarteak, eta enpresariak modu solidarioan behartuta egongo dira, baina ez da beharrezkoa izango elkarte horiek eskritura publikoan formalizatzea, harik eta kontratua haiei adjudikatzen zaien arte. Era berean, elkarteko ordezkari edo ahalordedun bakarra izendatu beharko dute, kontratuaren ondorioz sortzen diren eskubide eta betebeharrak berau amaitu arte betetzeko adina eskumen izango duena. Dena dela, botere mankomunatuak sortu ahal izango dira zenbateko handiko kobrantzak eta ordainketak egiteko.

   Aldi baterako enpresarien elkarteak eta kontratuak denbora berbera iraungo dute, hau da, azken hori desegin arte.

5. Kontratuaren balioetsitako balioa eta kontratuaren lizitazio-aurrekontua.
Publizitatea eta adjudikazio-prozedura zehazteko, kontratu honen kasuan balioetsi den balioa, Administraziok jasan beharko duen BEZa kanpo, Karatulan adierazitakoa da.

Kontratuaren lizitazio-aurrekontua bat dator Administrazioak kontratu honetan egingo duen gastuaren gehieneko aurrekontuarekin, eta karatulan agertzen dena da (BEZa barne).

Eskaintzaren oinarri den eta goragoko zenbatekoko edozein eskaintza baztertuko duen lizitazio-oinarria Karatulan adierazitakoa da. Hobekuntzak beherantz egingo dira, zenbateko zehatza gordailatuta.

Prezioak prestazioaren osagai ezberdinei edo eman/gauzatzen diren unitateei dagozkien unitate-prezioen terminoetan zehazten badira, Administrazioak beretzat gordeko du berauek aldatzeko balizko aukera, kontratuaren urteko gastuaren gehienezko aurrekontuaren %20an gutxi gorabehera. Hori guztia gastuan jasotako aurrekontuari dagokion egokitzapena onartzearen bitartez.

6. Aurrekontuko kredituaren existentzia.

Kontratu honen ondorioz sortuko diren betebehar ekonomikoak direla eta, Administrazioak horiek ordaintzeko beharrezko kreditua du. Baldintza-agiri honen Karatulan adierazita dago zein den aurrekontuko gordailua.

Aldez aurretik izapidetzeko kontratazio espedienteetan, esleipena gauzatzeko ezinbesteko baldintza etengarria izango da dagokion ekitaldian kreditu egoki edo nahikoa izatea.

7. Kontratuaren iraupena.

Kontratuaren iraupen-epea edo gehieneko egikaritzarako epea baldintza-agiri honen Karatulan adierazitakoa izango da.

Traktu bakarreko kontratuak: kontratua gauzatzeko epea:

A) eskaintzek ezin badute epe osoa eta/edo epe partzialak laburtzea proposatu: karatulan adierazitakoa.

B) eskaintzek epe osoa eta/edo epe partzialak laburtzea proposa badezakete: esleipendunak eskainitakoak.

Epe horiek luzatu ahal izateko, 195.2 SPKL.

Segidako traktuko kontratuak: kontratuaren iraupena eta, hala badagokio, epe partzialak karatulan adierazitakoak dira.

Kontratua luzatzea.

1. Kontratua luzatu ahal izango da karatulan hala xedatzen denean. Kontratazio-organoak kontratua luzatzea erabaki ahal izango du. Luzapena nahitaezkoa izango da kontratistarentzat, baldin eta kontratua amaitu baino bi (2) hilabete lehenago gutxienez jakinarazten bada.

Luzapena kontratazio-organoaren ebazpen bidez erabakiko da, eta prozedura hau izango da:

A) Kontratua sustatzen duen organoaren txostena, kontratu-harremana, prezioa eta epea luzatzeko beharra dakarten interes publikoko arrazoiak zehaztuta.

B) Kontratistari entzunaldia ematea bost (5) egun baliodunekoepean.

C) Txosten juridikoa.

D) Kontrol ekonomiko-fiskalaren aurretiazko fiskalizazio-txostena, salbuetsita ez dagoenean.

E) Kontratazio-organoaren ebazpena

2. Hala ere, SPKLren 29.4 artikuluarekin bat etorriz, kontratu bat mugaeguneratzean kontratistak egin beharreko prestazioaren jarraitutasuna bermatzen duen kontratu berria formalizatzen ez denean, kontratazio-organoak aurreikusi ezin dituen gertakarien ondorioz, esleipen-prozeduran gertatu eta prestazioa ez eteteko interes publikoko arrazoiak daudenean, jatorrizko kontratua luzatu ahal izango da kontratu berria gauzatzen hasi arte, eta Nolanahi ere, gehienez bederatzi hilabetez, kontratuaren gainerako baldintzak aldatu gabe, baldin eta kontratu berriaren lizitazio-iragarkia kontratua amaitu baino hiru hilabete lehenago argitaratu bada, gutxienez.

Kasu honetan, luzapen honen izaera aurreikusezina kontuan hartuta, haren aplikazioa ez baita kontratazio-organoaren borondatearen ondorio, ez da kontuan hartuko balio zenbatetsia finkatzeko, eta ez da aplikatzekoa izango aurretik aipatutako aurreabisu-betebeharra. Luzapenak kontratua amaitu aurretik onartu beharko dira.

8. Kontratazio-espedientearen tramitazioa.

Kontratazio-espedientea ohiko eran, premiaz edo larrialdi gisa tramitatuko da, baldintza-agiri honetako Karatulan adierazitakoaren arabera.

Premiaz.- **Premiazko** gisa sailkatutako espedienteak ohikoen prozedura berdinari jarraiki tramitatuko dira, honako berezitasun hauek kontuan hartuta (119 art):

a) Espedienteek lehentasuna izango dute tramitazioan esku hartzen duten organo desberdinek aztertu ahal izateko. Organo horiek bost eguneko epea izango dute dagokien txostenak igorri edo beharrezko tramiteak betetzeko.

b) Administrazioak kontratuaren betearazpenaren hasiera erabaki ahalko du, kontratua gauzatu barik egon arren, betiere horretarako berme egokia eratu bada.

c) Kontratua betetzen hasteko epea ezin izango da hamabost egun baliodunekoa baino luzeagoa izan, behin betiko adjudikazioa jakinarazten denetik zenbatzen hasita. Epe hori gaindituz gero, kontratua suntsitu egin ahalko da, atzerapena Ondarroako Udaletik eta kontratistarengandik kanpoko arrazoien ondoriozkoa bada salbu eta ebazpen arrazoituan hala jaso bada.

Larrialdia.- **Larrialdiko** tramitaziotzat jo diren espedienteek honako aparteko araubidea izango dute:

Kontratazio-organoak, administrazio-espedientea tramitatzeko beharrik gabe, beharrezko dena egiteko agindu ahalko du, gertutakoa konpontzeko edo bat-batean sortutako beharra asetzeko, edo bere xedea modu askean kontratatzeko, osorik edo zati batean. Hori horrela, ez dira bete beharko SPKLn ezarritako betekizun formalak, kreditu nahikoa izatearen betekizuna barne. Dagokion erabakiarekin batera, kreditua aldatzeko espedientearen hasiera justifikatzen duten dokumentazioa edo kreditu-atxikipen egokia aurkeztu beharko dira.

Prestazioak ematen hasteko epea ezingo da hilabete baino gehiagokoa izan, aurreko paragrafoan aurreikusitako erabakia hartzen denetik zenbatzen hasita. Epe hori gainditzen bada, prestaziook kontratatzeko ohiko prozedura tramitatu beharko da.

II. LIZITAZIOA

9. Adjudikazio-prozedura.

Kontratu hau PROZEDURA IREKI SINPLIFIKATUAREN BIDEZ esleituko da, eta esleipen-irizpide bakar bati edo hainbat esleipen-irizpideri jarraituz, karatulan xedatutakoaren arabera eta baldintza-agiri honen hurrengo ataletan ezarritako baldintzen eta baldintzen arabera, eta SPKLren 159. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Prozedura irekian, interesa duen enpresaburu orok aurkeztu ahal izango du proposamen bat, eta kanpoan geratuko da kontratuaren baldintzen negoziazio oro lizitatzaileekin.

10. Lizitazioaren publizitatea.

Lizitazioaren iragarkia Ondarroako Udalaren kontratatzailearen profilean soilik argitaratuko da, udalaren webgunean (www. Ondarroa.eus) eta Euskadiko Sektore Publikoko Kontratuen Plataforman.

Ondarroako Udalaren kontratatzailearen profilean kontratuaren lizitazioaren deialdiari buruzko informazioa eskainiko da, administrazio-klausula zehatzen pleguak eta dokumentazio osagarria barne, hala badagokio.

11. Printzipioak: berdintasuna, gardentasuna, publizitatea, informazioa eta konfidentzialtasuna.

Kontratazio-organoak trataera parekidea eta bereizkeriarik gabea emango die lizitatzaileei eta bere jarduera gardentasunez beteko du.

Kontratazioan ezin izango da mugatu forma juridikoaren edo irabazi-asmoaren araberako partaidetza, salbu eta karatularen arabera laugarren xedapen gehigarrian jasotako erakundeentzat gordetako kontratuak badira.

Adjudikazioaren publizitateari eta lizitatzaileei eman beharreko informazioari buruz SPKLko xedapenei kalterik egin gabe, kontratazio-organoek ezin izango dute zabaldu enpresaburuek emandako informazioa, baldin eta enpresaburuek konfidentzialtzat jo badute beren eskaintza aurkezteko unean.

Izaera horrek, bereziki, sekretu tekniko edo komertzialei eta eskaintzen alderdi konfidentzialei eragiten die, bai eta lehia faltsutzeko edukia duen beste edozein informaziori ere, lizitazio-prozedura honetan edo geroagoko beste batzuetan.

Kontratazio organoek ezin izango dute informazio hori berariazko baimenik gabe zabaldu.

12.. Parte hartzeko baldintzak

- Prozedura sinplifikatuaren bidez egindako lizitazioetara aurkezten diren lizitatzaileek inskribatuta egon beharko dute Sektore Publikoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean edo Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratisten Erregistro Ofizialean.

Oharra: hala ere, ohartarazten da Lizitatzaileen Erregistroan inskribatuta ez badago, baldintza hori betetzea behin-behinean etenda geratu dela (Estatuko Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordeak gomendatu die kontratazio-organoei, SPKL 159. artikuluan inskribatuta egoteko betekizuna aplikatzeari dagokionez).

-Kontratuaren xederako proposamenak aurkeztu ahalko dituzte, geroago azalduko den eran, Espainiako edo atzerriko pertsona natural edo juridikoek, jarduteko gaitasun osoa badute, kaudimen ekonomiko, finantzario, eta tekniko edo profesionala egiaztatzen badute, edo, hala badagokio, behar bezala sailkatuta badaude eta beren helburua kontratuaren xedearekin zuzenean lotuta badago, dagokien Estatutu edo fundazio-arauen arabera, eta hori guztia ondo egiaztatu badute, eta, azkenik, kontratua egoki betetzeko elementu pertsonal eta material nahikoa badaukate.

- Hurrenez hurren, gizarteratzeko enplegu-zentro bereziei eta laneratzeko enpresei erreserbatutako kontratua bada, edo enplegu babestuko programen esparruan sartuta badago, SPKLren laugarren xedapen gehigarrian xedatutakoaren arabera, edo zenbait erakunderi SPKLren berrogeita zortzigarren xedapen gehigarrian ezarritakoaren arabera, soilik parte hartu ahal izango dute legez ezarritako baldintzak betetzen dituztenek.

Ezingo dute lizitazioan parte hartu kontratazio honen zehaztapen teknikoak prestatzeko orduan esku hartu duten enpresek, betiere esku-hartze horrek murrizketak eragiten baditu lehia askean edo gainerako enpresa lizitatzaileen aldean lehentasunezko trataera sortzen badu.

Proposamenak aurkezteak esan nahi du lizitatuko duenak baldintzarik gabe onartzen dituela baldintza-agiri honetako klausulak, baldintza-agiriaren karatulako zehaztapenak, eta kontratuaren gainerako dokumentu guzti-guztiak. Gainera, aurkeztutako datu guztiak zehatzak izatearen ardurapeko aitorpena egiten duela ere esan nahi du. Halaber, prestazioa kontratatzeko eskatutako baldintza guztiak betetzen dituela ulertuko da.

Lizitatzaile bakoitzak ezingo du proposamen bat baino gehiago aurkeztu, ez banan-banan, ez aldi baterako enpresen elkarteetako baten baino gehiagoren kide gisa, eta banan-banan lizitatzen duenak ezingo du beste proposamenik sinatu beste batzuekiko aldi baterako elkartean. Arau horiek hausten badira ez dira urratze horiek egin dituzten eskabide eta eskaintzak onartuko.

13. Proposamenak aurkeztea: aurkezteko leku eta modua.

Proposamenak elektronikoki aurkeztuko dira Ondarroako Udalaren Lizitazio Elektronikoko Plataformaren bitartez.

Elektronikoki lizitatu ahal izateko, eskaintzak aurkezteko aplikazioa deskargatu beharko da aldez aurretik gutun-azal digitalaren bidez, kontratatzailearen profilean eskuragarri dagoen esteka sakatuta.

Lizitazio Elektronikoaren Plataforman sartzeko, lizitatzaileak ziurtagiri elektroniko bat izan behar du, plataformak onartutako ziurtapen-zerbitzuen emaile batek aitortua edo kualifikatua.

Plataformak onartutako ziurtapen-zerbitzuen emaile batek aitortutako edo kualifikatutako elektronikoa.

Proposamenak aurkezteko epea.

Ondarroako Udaleko kontratatzailearen profilean adierazitako eguneko 13:00ak arte (13:00). Eskaintzak egunean 24 orduz aurkeztu ahal izango dira asteko 7 egunetan, **aurkezteko epearen azken egunean izan ezik, orduan 13: 00ak arte aurkeztu ahal izango baita.**

Eskaintza aurkezteko eguna eta ordua plataformaren erregistro elektronikoak emandako frogagirian jasotakoak izango dira, eta bat etorriko dira eskaintza jasotzen den unearekin.

Eskaintza elektronikoki aurkezteko jarraibide zehatzak administrazio-klausula zehatzen agiri honen eranskinean daude.

Forma:

1. mota. Prozeduran ez bada aurreikusten balio-judizio baten arabera kuantifikatutako esleipen-irizpiderik (hau da, bakarrik daude formula bidez kuantifika daitezkeen irizpideak) eskaintza gutun-azal bakar batean aurkeztuko da:

GUTUN-AZAL BAKARRA izenburu honekin**:** "ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENAREN ETA FORMULA BIDEZ KUANTIFIKA DAITEZKEEN IRIZPIDEEN ESKAINTZA"

2. mota. Prozeduran balio-judizio baten arabera kuantifikatutako esleipen-irizpideak eta formula bidez kuantifika daitezkeen irizpideak ere jasotzen badira, eskaintza bi gutun-azaletan aurkeztuko da:

"A" GUTUN-AZALA izenburua honekin: "FORMULAREN ARABERA KUANTIFIKATU EZIN DIREN IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA"

"B" GUTUN-AZALA izenburu honekin: "FORMULA BIDEZ KUANTIFIKATU DAITEZKEEN IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA ETA ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA"

Gutun-azalak lizitatzaileak edo haren ordezkariak sinatu beharko ditu nahitaez.

14. Aurkeztu beharreko agiriak.

1. mota. Prozeduran ez bada aurreikusten balio-judizio baten arabera kuantifikatutako esleipen-irizpiderik (hau da, bakarrik daude formula bidez kuantifika daitezkeen irizpideak), eskaintza gutun-azal bakarrean aurkeztuko da: "ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA ETA FORMULA BIDEZ KUANTIFIKATU DAITEZKEEN IRIZPIDEEN ESKAINTZA"

Agiri hauek izango ditu:

1.- ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA Ondarroako Udalaren aurrean, ereduaren araberako aurretiazko betekizunak betetzeari buruzkoa (baldintza administratibo zehatzen agiriko I. eranskineko ereduaren arabera)

2- ESKAINTZA EKONOMIKOA: proposamen ekonomikoa, baldintza administratibo zehatzen agiriko II. eranskineko ereduaren arabera.

- Makinaz idatzitako proposamen bakarra izango du, lizitatzaileak edo haren ordezkariak sinatuta, eta agiri honen II. eranskineko ereduaren arabera idatzita.
- Eskaintza ekonomikoak partida independente gisa adieraziko du jasanarazi beharreko BEZa.
- Eskaintza ekonomikoaren zenbatekoak ezingo du gainditu kontratuaren lizitazio-aurrekontua.
- Ondorio guztietarako, eskainitako prezioan kontzeptu guztiak sartuta daudela ulertuko da, edozein zerga-eremutako gastuak, tasak eta arielak barne, bai eta kontratistaren onura industriala ere, BEZa izan ezik, partida independente gisa jasanaraziko baita.

3- Formularen bidez kuantifikatu daitezkeen irizpideak baloratzeko beharrezkoak diren **ERANSKINAK eta/edo DOKUMENTUAK**, hala badagokio, karatulan adierazitakoak.

4- Enpresaburuen elkarte bat eratuz gero: **ABEE ERATZEKO KONPROMISOAREN DOKUMENTUA** (I.bis eranskineko ereduaren arabera) honako hauek adierazita: hitzarmena sinatzen dutenen izenak eta inguruabarrak, horietako bakoitzaren partaidetza-ehunekoa eta kontratua indarrean dagoen bitartean guztien ordezkaritza osoa izan behar duen pertsona Administrazioaren aurrean.

5- Eskatutako **ENPRESA EDO LANBIDE-GAIKUNTZA** egiaztatzen duen agiria, karatulan enpresa- edo lanbide-gaikuntza eskatzen bada.

2. mota. Prozeduran balio-judizio baten arabera kuantifikatutako esleipen-irizpideak eta formula bidez kuantifikatu daitezkeen irizpideak ere jasotzen badira, eskaintzak bi gutun-azal aurkeztuko ditu:

"A" gutun-azala: "FORMULAREN ARABERA KUANTIFIKATU EZIN DIREN IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA"

Lizitatzaileek beren eskaintzak baloratzeko eta haztatzeko behar diren dokumentuak aurkeztu beharko dituzte, karatulan ezarritako formulen bidez kuantifikatu ezin diren eskaintzak baloratzeko irizpideei dagokienez.

Gutun-azal horretan ez da inola ere jaso beharko eskaintza ekonomikoari buruzko dokumentu garrantzitsurik, ezta formula bidez kuantifikatu daitezkeen irizpideei buruzko alderdirik ere.

"B" gutun-azala: "FORMULA BIDEZ KUANTIFIKATU DAITEZKEEN IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA ETA ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA"

Agiri hauek izango ditu:

1.- **ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA** Ondarroako Udalaren aurrean, ereduaren araberako aurretiazko betekizunak betetzeari buruzkoa (baldintza administratibo zehatzen agiriko I. eranskineko ereduaren arabera).

2- **ESKAINTZA EKONOMIKOA**: proposamen ekonomikoa, baldintza administratibo zehatzen agiriko II. eranskineko ereduaren arabera.

• Makinaz idatzitako proposamen bakarra izango du, lizitatzaileak edo haren ordezkariak sinatuta, eta agiri honen II. eranskineko ereduaren arabera idatzita.
• Eskaintza ekonomikoak partida independente gisa adieraziko du jasanarazi beharreko BEZa.
• Eskaintza ekonomikoaren zenbatekoak ezingo du gainditu kontratuaren lizitazio-aurrekontua.
• Ondorio guztietarako, eskainitako prezioan kontzeptu guztiak sartuta daudela ulertuko da, edozein zerga-eremutako gastuak, tasak eta arielak barne, bai eta kontratistaren onura industriala ere, BEZa izan ezik, partida independente gisa jasanaraziko baita.

3. Formularen bidez kuantifikatu daitezkeen irizpideak baloratzeko beharrezkoak **DIREN ERANSKINAK ETA/EDO DOKUMENTUAK**, hala badagokio, karatulan adierazitakoak.

4- Enpresaburuen elkarte bat eratuz gero: **ABEE ERATZEKO KONPROMISOAREN DOKUMENTUA** (I.bis eranskineko ereduaren arabera) honako hauek adierazita: hitzarmena sinatzen dutenen izenak eta inguruabarrak, horietako bakoitzaren partaidetza-ehunekoa eta kontratua indarrean dagoen bitartean guztien ordezkaritza osoa izan behar duen pertsona Administrazioaren aurrean.

5- Eskatutako **ENPRESA EDO LANBIDE-GAIKUNTZA** egiaztatzen duen agiria, karatulan enpresa- edo lanbide-gaikuntza eskatzen bada.

* Aurreko paragrafoetan aipatzen diren kontratatzeko debekuen gaitasunari, kaudimenari eta gabeziari buruzko inguruabarrak eskaintzak aurkezteko azken egunean gertatu beharko dira, eta kontratua burutzeko unean iraun beharko dute.

Honako proposamen hauek ez dira onartuko:

- Administrazioak eskaintza aintzat hartzeko funtsezkotzat jotzen duena argi eta garbi ezagutzea eragozten duten kontraesanak, omisioak, akatsak edo zirriborroak dituztenak.
- Aztertutako eta onartutako dokumentazioarekin bat datozenak.
- Gehieneko lizitazio-tasa gainditzen dutenak.
- Proposamenaren zenbatekoan akats nabarmena dutenak.

- Agiri honen II. eranskinean ageri den proposamen-eredua nabarmen aldatzen dutenak.
- Lizitatzaileak onartzen duenean bideraezin bihurtzen duen akats edo funtsik eza dagoela.

Letretan adierazitako eskaintzaren eta zenbakietan adierazitakoaren artean desadostasunik badago, letretan jasotako kopurua gailenduko da (salbuespen batekin, kopuru hori lizitazio-tasa baino handiagoa bada), salbu eta, dokumentazioa aztertzetik eratorritako arrazoizko irizpideak erabiliz, beste jarrera bat hartzen bada.

Jasota geratzen da eskaintza ekonomikoko kontu-akatsak zuzendu egin beharko direla.

Eskaintzak ukatzea ez dakarten kontraesanak edo akatsak egonez gero, arrazoizko irizpideen arabera eta administrazioarentzat onuragarriena den jarrera hartuko da.

Lizitatzaile bakoitzak ezin izango du proposamen bat baino gehiago aurkeztu, baina karatulan baimentzen bada, baimentzen diren aukera aldagarri guztiak jaso ahal izango ditu, eta, ondorioz, eskaintza ekonomiko aldagarriak.

15.- Dokumentazioa aurkezteari buruzko ohar argigarriak.

KONFIDENTZIALTASUNA

Aurkeztutako dokumenturen bat konfidentziala dela uste duten lizitatzaileek izendapen esplizitua egin behar dute — a gutun-azalean aurkeztu beharreko erantzukizunpeko adierazpena betez —, eta argi eta garbi adierazi behar dute, gaininprimatuta edo orri-bazterrean, konfidentziala den dokumentuan bertan. Izendapena ez bada horrela egiten, dokumentua ez da konfidentzialtzat joko.

Eskaintza ekonomikoa ez da inola ere konfidentziala izango. Eskaintza ekonomikoa isilpekotzat izendatzea egin gabekotzat joko da.

Konfidentzialtasun-adierazpena ezin izango da lizitatzaileak aurkeztutako dokumentazio osora hedatu, ez eta eskaintza teknikoa egiaztatzen duen dokumentazio osora ere. Kasu horretan, edo deklarazio hori behar ez bezala dimentsionatzen bada, kontratazio-organoak erabakiko du, arrazoituta, zer datu eta/edo dokumentuk merezi duten izaera hori. Era berean, kontratazio-organoak jardungo du baldin eta deklarazioan ez badago arrazoi egokirik eta behar bezain oinarridunik lizitatzaileak konfidentzialtzat jo dezan halakotzat jotako informazioa.

Lizitatzaileak ez badu berariaz adierazi konfidentzialtzat datu eta/edo dokumenturik, aurkeztutako datu eta/edo dokumentuetako bat ere ez dela konfidentziala ulertuko da, hargatik eragotzi gabe, salbuespenez eta arrazoituta, kontratazio-organoak konfidentzialtzat jotzea halakotzat jo ez den informazioa, enpresa-interes legitimoak babesteko.

Era berean, eskaintzak aurkeztu ondoren, ezingo dira isilpeko datu gisa adierazi eskaintzak aurkezteko unean konfidentzialtzat izendatu ez direnak.

Esleipen-prozeduran hasierako eskaintzan sartzen ez zen dokumentazioa aurkezten bada, konfidentzialtzat jo ahal izango dira dokumentazio berri hori osatzen duten datuak edo dokumentuak, klausula honen aurreko paragrafoetan deskribatutako baldintzetan.

DOKUMENTAZIOAREN EGIAZKOTASUNA.

Administrazioak egiaztatu ahal izango du, esleipena egin aurretik zein ondoren eta kontratua egin bitartean, gutun-azaletan sartutako dokumentuen edukia egiazkoa dela, bai eta, hala badagokio, karatulan esleipen-irizpide gisa jasotzen direnena ere. Enpresak aurkeztutako datuak eta inguruabarrak faltsuak badira, kontratua deuseztatu ahal izango da, kontratistari egotz dakiokeen ez-betetzeagatik, eta eratutako behin betiko bermea galduko da. Edo, hala badagokio, haren balioagatiko kalte-ordaina, eratu ez bada edo eratzea eskatzen ez bada, eta, gainera, administrazioari kalte-ordaina eman beharko dio bermearen zenbatekoa gainditzen duten kalte eta galerengatik.

DOKUMENTAZIOA ITZULTZEA/SUNTSITZEA

Errekurtsoak aurkezteko epeak amaitu eta oraindik ez badira aurkeztu, proposamenekin batera aurkeztutako dokumentazioa interesdunen esku geratuko da. Dokumentazioa berreskuratu nahi duten lizitatzaileek idatziz bidali beharko diote Ondarroako Udaleko Kontratazio Bulegoari espediente-zenbakia eta dokumentuak jasotzera joango den pertsona fisikoa identifikatzeko eskaera, eta administrazio-bulegoetara joan beharko dute dokumentuak jasotzera. Hala

ere, esleipena egin eta hiru hilabeteko epea igarotakoan, lizitatzaileek aurkeztutako dokumentazioa suntsitzea erabaki ahal izango du Administrazioak, baldin eta lizitatzaile horiek ez badute dokumentazio hori kendu.

I6. Enpresa lizitatzailearen ondorengotza prozeduran.

Prozedura bat izapidetzen ari den bitartean eta kontratua formalizatu aurretik enpresaren ondarea edo jardueraren adar bat fusionatzeko, zatitzeko edo eskualdatzeko eragiketaren bat egiten bada, enpresa lizitatzaileari edo hautagaiari, prozeduran duen posizioan, sozietate xurgatzailea, bat-egitearen ondoriozko sozietatea, zatiketaren onuraduna edo enpresa-ondarearen edo dagokion jarduera-adarraren eskuratzailea ordezkatuko zaizkio, betiere gaitasun-baldintzak betetzen baditu eta Kontratatzeko debekurik ez izatea eta kaudimena eta sailkapena egiaztatzea, administrazio-klausula zehatzen agirian eskatzen diren baldintzetan, prozedura honetan parte hartu ahal izateko:

III. PROPOSAMENEN IREKIERA ETA KONTRATAZIO MAHAIAREN JARDUNA.

17. Kontratazio mahaia

Kontratazio-mahaia da eskaintzak baloratzeko organo eskuduna. SPKLren Bigarren Xedapen Gehigarrian aurreikusitakoaren arabera eratuko da, eta presidente batek eta gutxienez hiru bokalek eta idazkariak osatuko dute.

Kontratazio-mahaiaren funtzionamendu-araubidea SPKLn eta hura garatzeko xedapenetan araututakoa da.

"A" eta "B" gaiei buruzko irekiera-ekitaldi publikoak honela egingo dira:

Tokia	Ondarroako udaletxeko batzar gela Musika plaza z/g, 2. solairua 48700 - Ondarroa
Data eta ordua	Kontratatzaileen profilean agertuko da Asteko eguna: asteartea Ordua: 14:00ak.

18.- Kontratazio-mahaiaren jarduna.

Kontratazio-mahaiaren jarduna lizitatzaileak eskaintza egitean aurkeztu behar dituen gutun-azalen arabera egokituko da:

1. mota. Prozeduran ez bada aurreikusten balio-judizio baten araberako kuantifikazioa duten esleipen-irizpiderik, eskaintza gutun-azal bakar batean aurkeztuko da: "Erantzukizunpeko adierazpena eta zifretan edo ehunekoetan balora daitezkeen irizpideen eskaintza".

Gutun-azala jendaurrean irekitzea. Gutun-azala ireki aurretik eta eskaintzak irakurri aurretik, kontratazio-mahaiak erabakiko du zein lizitatzaile onartu eta baztertu behar diren, eta lizitatzaileak onartu edo baztertu diren jakinaraziko du.

2. mota. Prozeduran balio-judizio baten arabera kuantifikatutako esleipen-irizpideak jasotzen badira, eskaintzak bi gutun-azal aurkeztuko ditu:

a) A gutun-azala irekitzea.

Mahaiak proposamen onartuen, baztertuen eta ezesteko arrazoien berri emango du, eta onartutako lizitatzaileei dagozkien "formularen arabera kuantifikatu ezin diren irizpideetan" irekiko du gutun-azala. Egintza hori publikoa izango da, karatulan hala jasotzen bada.

Ondoren, Kontratazio Mahaiak, egoki baderitzo, espedientea sustatu duen sailaren txostenari "a" gutun-azalak bidaltzea erabakiko du, eskaintzek plegu teknikoan ezarritako zehaztapenen aurkako edukirik ez dutela egiaztatu, baloratu eta dagokion txostena egin dezan.

Zerbitzu sustatzaileak, ebaluazioa egitean, egiaztatzen badu eskaintzaren bat pleguen aurkakoa dela edo beste gutun-azal batean aurkeztu beharreko dokumentuak edo datuak dituela, inguruabar hori jasoko du txostenean. Egin ondoren, kontratazio-mahaira bidaliko du eskaintzak osatzen dituzten dokumentuekin batera.

Era berean, proposamenak baloratzeko, egokitzat jotzen dituen txosten tekniko guztiak eskatu ahal izango ditu, proposamena egin aurretik. Nolanahi ere, adituen batzordeak edo erakunde tekniko espezializatuak esku hartu ahal izango du formulak aplikatuz automatikoki ebaluatu daitezkeen irizpideei balio-judizio baten arabera kuantifikatu beharreko irizpideei dagokiena baino ponderazio txikiagoa ematen zaien kasuetan. Hala badagokio, batzorde horren osaera klausula-orri hauen karatulan ageri da. Aipatutako aditu-batzordearen ebaluazioa loteslea izango da Kontratazio Mahaiarentzat, kontratua esleitzeko proposamena egin ahal izateko.

b) B gutun-azala jendaurrean irekitzea.

Formulen bidez kuantifikatu ezin diren irizpideak ebaluatzeko eskatutako txostena (k) jaso eta ezagutu ondoren, mahaia eratu egingo da eta ekitaldi publikoan jakinaraziko du eskaintzei esleitutako haztapena, formulen bidez kuantifikatu ezin diren irizpideei dagokienez.

Ebaluazio globalean onartuak izateko gutxieneko puntuazio-atalasea eskatu den kasuetan, lizitatzaileek gutxieneko puntuazio-atalasea lortzea eskatuko da, Kontratazio Mahaiak kontuan har ez ditzan eta puntuazio hori lortzen ez duten eskaintzek hautaketa-prozesuarekin jarrai ez dezaten.

Ondoren, B gutun-azala irekiko da: onartutako proposamenen formulen arabera kuantifikatu daitezkeen irizpideak eta horietan jasotako eskaintzak irakurriko dira.

Egokitzat jotzen badu, "B" gutun-azalak espedientea sustatu duen sailaren txostenera bidaltzea erabakiko du, formulen bidez kuantifikatu daitezkeen esleipen-irizpideei buruzko proposamenak aztertzeko.

Dokumentu bat bistaratzeko zailtasunak: Eskaintza bateko edozein dokumentu ezin bada behar bezala ikusi, aukera emango da lizitatzaileak formatu digitalean aurkez dezan fitxategi okerreko dokumentua, egoera hori jakinarazten zaionetik gehienez ere 24 orduko epean. Geroago aurkeztutako dokumentuak ezingo du inolako aldaketarik jasan eskaintzan sartutako jatorrizkoarekiko. Kontratazio-organoak egiaztatzen badu dokumentuak aldaketak izan dituela, lizitatzailearen eskaintza ez da kontuan hartuko.

Akatsak edo omisioak zuzentzea: gutun-azal elektronikoa ireki ondoren, bertan kontratu hau eskuratzeko baldintzak eta esleipen-irizpideak betetzeari buruzko dokumentazioa dagoela egiaztatuko da. Ondorio horietarako, dokumentazio horretako akatsak edo omisioak zuzendu behar badira, kontratazio-mahaiak edo organoak gehienez ere sei egun balioduneko epea emango du, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legea partzialki garatzen duen maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretuaren 27. artikuluan xedatutakoaren arabera.

c) Eskaintzen ebaluazioa eta esleipen-proposamena.

- Kontratazio-mahaiak honako jarduketa hauek egingo ditu behar diren bilkuretan:

- Eskaintzak pleguetan ezarritako ezespen-arrazoiren batean erortzen diren egiaztatuko du.

- Onartutako eskaintzek balio anormalki baxuak dituzten egiaztatuko du; kasu horretan, hurrengo artikuluan adierazten den bezala jokatuko da. Prozedura hori amaitutakoan, kontratazio-organoari proposatuko dio bete ezin diren eskaintzak onartzea edo ez onartzea.

- Eskaintzen puntuazioak kalkulatuko ditu eta onena zein den zehaztuko du, horietako bakoitzak esleipen-irizpide guzti-guztietan lortutako puntuak batuz.

- Kalkulua egiteko, ez dira kontuan hartuko errefusatzeko proposatu diren eskaintzak.

- Kontratazio-mahaiak puntuazioaren arabera sailkatuko ditu eskaintzak, eta, sailkapen horretan oinarrituta, esleipen-proposamena helaraziko dio kontratazio-organoari.

- Esleipendun gisa proposatutako lizitatzaileari dagokionez, mahaiak Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean edo Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratisten Erregistro Ofizialean egiaztatuko du enpresa behar bezala eratuta dagoela, proposamenaren sinatzaileak eskaintza egiteko botere nahikoa duela, kaudimen ekonomiko, finantzario eta teknikoa duela edo, hala badagokio, dagokion sailkapena duela eta kontratatzeko inolako debekurik ez duela.

d) Kontratazio Mahaiaren egintzen emaitzen publizitatea.

Kontratazio-mahaiaren egintzen emaitza gutun-azalak irekitzeko aktetan kondentsatuko da. Akta horiek kontratatzailearen profilean argitaratzen den kontratu bakoitzaren iragarki-taulan argitaratuko dira, udalaren webgunean.

19. Ezohiko edo neurrigabeko balioak dituzten eskaintzak.

Baldintza-agiri honen karatulan hala aurreikusten bada, bertan ezarritako parametroren arabera ezohiko edo neurrigabeko balioak dituzten eskaintzak zehazteko SPKLko 149 artikuluan ezarritakoa hartuko da aintzat.

Eskaintzen ezaugarriak kontuan hartuta, entzunaldi-epe bat emango da, gehienez ere bost (5) egun baliodunekoa.
Prozeduran, dagokion zerbitzuaren aholkularitza teknikoa eskatu beharko da.

Nolanahi ere, eskaintzak ez dira onartuko, baldin eta egiaztatzen badute oso baxuak direla, azpikontratazioari buruzko araudia urratzen dutelako edo ez dituztelako betetzen ingurumen, gizarte edo lan arloan aplikatzekoak diren betebeharrak, estatukoak edo nazioartekoak, indarrean dauden sektoreko hitzarmen kolektiboak ez betetzea barne, 201. artikuluan ezarritakoa aplikatuz.

Nolanahi ere, justifikazioak ez du behar bezala azaltzen lizitatzaileak proposatutako prezioen edo kostuen maila baxua, baldin eta osatugabea bada edo ikuspuntu teknikotik, juridikotik edo ekonomikotik desegokiak diren hipotesi edo praktiketan oinarritzen bada.

20. Berdinketa hausteko irizpideak.

Proposamen abantailatsuen kasuan (bi dezimal arteko puntuazio-berdintasuna), berdinketa hausteko irizpide hauek aplikatuko dira, lehentasun-ordenaren arabera:

1.- Desgaitasuna duten langileen ehunekoa araudiak ezarritakoa baino handiagoa izatea.
2.- plantillan desgaitasuna duten langile finkoen ehuneko handiagoa.
3.- Laneratze-enpresen araubidea arautzeko abenduaren 13ko 44/2007 Legean araututako laneratze-enpresen proposamenak.
4.- Izaera juridikoa duten irabazi-asmorik gabeko erakundeek aurkeztutako proposamenak, baldin eta haien xedeak edo jarduerak lotura zuzena badu kontratuaren xedearekin, soilik prestazio sozial edo asistentzialei buruzko kontratuen kasuan.
5.- Bidezko merkataritzako erakunde gisa aitortutako erakundeen eskaintzak, bidezko merkataritzako aukera duten produktuak xede dituzten kontratuak esleitzeko.
6.- Eskaintzak aurkezteko epea amaitzean, emakumeen eta gizonen arteko aukera-berdintasuna bultzatuko duten gizarte- eta lan-arloko neurriak jasotzen dituzten enpresek aurkeztutako proposamenak.
Atal honetan aipatzen diren berdinketa hausteko irizpideak egiaztatzeko agiriak lizitatzaileek aurkeztuko dituzte berdinketa gertatzen den unean, eta ez aldez aurretik.

Horretarako, kontratazio-unitateak dagokion dokumentazioa eskatuko die eragindako enpresei, eta gutxienez bost egun naturaleko epea emango die aurkezteko.

IV.- ESKAINTZEN SAILKAPENA, KONTRATUA ADJUDIKATZEA ETA GAUZATZEA.

21. Eskaintzen sailkapena eta adjudikazio-proposamena

Kontratazio-organoak kontratazio-mahaiak proposatutako sailkapena eta adjudikazio-proposamena onartuko du.

22. Esleipena egin aurretik aurkeztu beharreko dokumentazioa.

Eskaintza puntuaziorik onenarekin aurkeztu duen lizitatzaileari errekerimendua bidali eta zazpi (7) egun balioduneko epean honako hau aurkezteko eskatuko zaio:

1.- Behin betiko berme-errekerimendua.- Udal Diruzaintzan administrazio kontratatzailearen alde behin betiko bermea eratu izana egiaztatzen duen gordekina.

Zenbatekoa.- baldintza-agiri honen karatulako "behin betiko bermea" atalean ezartzen da.

Bermea emateko moduak.- Bermea legean aurreikusitako edozein modutan eman ahal izango da. Administrazioak beretzat gordetzen du abalak sinatzeko legitimazioa eskatzeko eskubidea.

Aldi baterako enpresa-elkarteen kasuan, parte hartzen duten enpresen arrazoi sozialak eta IFZ zehaztu beharko dira. Era berean, parte hartzen duten enpresetako batek edo batzuek eratu ahal izango dituzte bermeak, baldin eta, oro har, eskatutako zenbatekoa lortzen bada eta aldi baterako elkarteko kide guztiak solidarioki bermatzen badira.

2.- Erantzukizunpeko adierazpenean hala adierazi badu, **kanpoko bitartekoekin kaudimena integratzeko konpromisoa**, eranskin VI. gisa ageri den ereduaren arabera.

3.- Esleipenduna **aldi baterako enpresaburu-elkartea bada**, elkartea formalizatzeko eskritura publikoa aurkeztu beharko du. Halaber, elkarteko kide bakoitzak ogasunen eta Gizarte Segurantzaren arloko ziurtagiri positiboa eta Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergari buruzko dokumentazioa aurkeztuko ditu.

4.- Hala badagokio, **kontratua gauzatzeko erabili edo adskribatzeko konpromisoa hartu duen** edo kontratazio-organoak erreklamatzen dizkion baliabideak benetan badauzkala egiaztatzen duen dokumentazioa.

5.- **Kontratu erreserbatuak**: kontratu erreserbatuen kasuan, lizitatzaileak agiri bidez egiaztatu beharko du erreserba horren baldintzak betetzen dituela.

6.- **Lizitatzaileen Erregistroan inskribatuta ez badago** (baldintza hori betetzea etenda geratuko da Estatuko Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordeak aplikatzeko eskakizuna argitaratu arte), honako hauek ere aurkeztu beharko ditu:

1**.- jarduteko gaitasuna egiaztatzen duen dokumentazioa**, jarraian zehazten diren kasuen arabera:

A) Pertsona fisikoa: proposamena egiten duen pertsonaren NANa edo haren ordez jardungo duen agiri fede-emailea.
B) Pertsona juridikoa: eratze-eskritura edo -agiria, estatutuak edo sortze-egintza, jarduera arautzen duten arauak jasotzen dituena, kasuan kasuko erregistro publikoan behar bezala inskribatuta, kasuan kasuko pertsona juridikoaren motaren arabera.
Nolanahi ere, kontratuaren xede diren prestazioak estatutuen edo sorrerako arauen arabera berezkoak dituzten helburuen, xedearen edo jarduera-eremuaren barruan egon beharko dira.
C) Aldi baterako enpresaburu-elkarteak: kide bakoitzak bere gaitasuna, nortasuna, ordezkaritza eta kaudimena egiaztatuko ditu.
D) Espainiarrak ez diren eta Europar Batasuneko estatu kideetako nazionalitatea duten enpresaburuak: enpresariak dagokien erregistroan inskribatzea, ezarrita dauden estatuko legeriaren arabera, edo Europar Batasuneko xedapen aplikagarrien araberako zinpeko aitorpena edo ziurtagiria aurkeztuta. Era berean, enpresa horiek kokatuta dauden estatuko legeriak baimen berezia eskatzen duenean edo dena delako zerbitzua eman ahal izateko erakunde jakin bateko kide izatea eskatzen duenean, baldintza hori betetzen dutela egiaztatu beharko dute.
E) Europar Batasunekoak ez diren estatuetako pertsona fisiko edo juridikoak: Espainiak dagokion estatuan duen Misio Diplomatiko Iraunkorraren edo enpresaren egoitza dagoen lurralde-eremuko Kontsuletxeko Bulegoaren txostena. Era berean, aurkezten den dokumentazioarekin batera aurkeztuko da atzerriko enpresaren jatorrizko estatuak onartzen duela, era berean, Espainiako enpresek parte hartzea administrazioarekiko kontratazioan, funtsean antzeko moduan. Erregulazio harmonizatuko kontratuetan ez da elkarrekikotasunari buruzko txostenik egingo Munduko Merkataritza Erakundearen Kontratazio Publikoari buruzko Akordioa sinatu duten estatuetako enpresei dagokienez.

2.- **ordezkaritza egiaztatzeko agiriak.-** Eskaintza sinatzen duen pertsonak bere izenean jarduten ez duenean, edo lizitatzailea sozietate edo pertsona juridiko bat denean, sinatzen duen pertsonak horretarako ahalorde nahikoa aurkeztu

behar du. Lizitatzailea pertsona juridikoa bada, ahalorde hori dagokion erregistro publikoan behar bezala inskribatuta egon beharko da, baldin eta, pertsona juridiko motaren arabera aplikatu beharreko araudiaren arabera, nahitaezkoa bada hura inskribatzea.

3.- **Kaudimen ekonomiko, finantzario eta tekniko edo profesionala**.- Lizitatzaileak karatulan eskatutako gutxieneko kaudimen-baldintzak egiaztatzeko adierazitako dokumentazioa aurkeztu beharko du, salbu eta baldintza horien ordez karatulan adierazitako sailkapena aurkeztu bada (III eta IV. eranskinetan ageri den ereduen arabera).

4.- **Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izatea**

A. Foru Ogasunak edo/eta Zerga Administrazioko Estatu Agentziak emandako ziurtagiri positiboa, zerga-betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duena.
3/2011 Legearen 15. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, interesdunak kontratazio-prozedura honetan parte hartzeko proposamena aurkezteak baimena ematen dio organo kudeatzaileari administrazio honekiko zerga-betebeharrak betetzeari buruzko ziurtagiriak eskatzeko; beraz, ez da beharrezkoa izango esleipendun gisa proposatutako enpresak kasu honetan horiek aurkeztea.
HAKLren Erregelamendu Orokorraren 13. artikuluan zerrendatzen diren zerga-betebeharrei dagozkien aitorpen edo agiri guztiak edo batzuk aurkeztera behartuta ez dagoen lizitatzaileak erantzukizunpeko adierazpen bidez egiaztatu beharko du inguruabar hori.
Salbuespenen bat kontuan hartu behar bada, erantzukizunpeko adierazpenaren bidez egiaztatu beharko da hori.

B. Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duen ziurtagiri positiboa, edo, hala badagokio, dagokion mutuan alta emanda dagoela egiaztatzen duena.
Uneko ekitaldiari dagokion alta edo ekonomia-jardueren gaineko zergaren azken ordainagiria, zerga horren matrikulan baja eman ez izanaren erantzukizunpeko adierazpen batekin osatua. Zerga horretatik salbuetsita egonez gero, zerga horren matrikulan baja eman ez izanaren erantzukizunpeko adierazpena aurkeztuko du, eta salbuespen-kasua adieraziko du.

5.- Uneko ekitaldiari dagokion alta edo ekonomia-jardueren gaineko zergaren azken ordainagiria. Zerga horretatik salbuetsita egonez gero, salbuespen-kasua adieraziko du.

Zuzenketa. Aurkeztutako dokumentazioan zuzendu daitezkeen akatsak edo omisioak antzemanez gero, interesdunari posta elektronikoz jakinaraziko zaio, eta gehienez ere hiru egun balioduneko epea emango zaio akatsa zuzen dezan.

Ez-betetzea. Adierazitako epean errekerimendua behar bezala betetzen ez badu, eskaintza erretiratu duela ulertuko da. Kasu horretan, honako jarduketa hauek egingo dira:

- Lizitazioaren oinarrizko aurrekontuaren (BEZ kanpo)% 3ko zenbatekoa eskatzea, zigor gisa. Zenbateko hori, lehenik eta behin, behin-behineko bermearen aurka ordainduko da, berme hori eratu bada, SPKLren 71.2 artikuluaren a) letran ezarritakoari kalterik egin gabe.
- Hurrengo lizitatzailearengandik dokumentazio bera biltzea, bere eskaintzak sailkatu diren hurrenkeraren arabera.

Elkarreragingarritasuna

Ondarroako Udalak, eskura dituen datuen bitartekotza-plataformen bidez, beste edozein administrazio publikok egindako dokumentazioa jasoko du, lizitazio-prozesu honetan nahitaezkoa dena. Arrazoi teknikoak direla-eta elkarreragingarritasuna ezinezkoa bada, udalak agiri horiek aurkezteko eskatu ahal izango du.
Enpresa lizitatzaileek berariazko baimena eman badute administrazio horrek Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergari buruzko datuak eskura ditzan, Ondarroako Udalak, eskura dituen datuen bitartekaritza-plataformen bidez, dagozkion ogasunek eman beharreko ziurtagiriak bilduko ditu. Arrazoi teknikoak direla-eta elkarreragingarritasuna ezinezkoa bada, udalak agiri horiek aurkezteko eskatu ahal izango du.

Baldintzak betetzen direla egiaztatzen duen dokumentazioa.

Kontratazio-organoak uste badu arrazoizko zalantzak daudela erantzukizunpeko adierazpenaren indarraz edo fidagarritasunaz, edo prozedura behar bezala garatzeko beharrezkoa dela, esleipen-proposamena onartu aurreko edozein

unetan eskatu ahal izango da lizitatzaileek aurkez dezatela legez eta baldintza-agiri honetan kontratatzeko eskatzen diren baldintzak betetzen dituztela egiaztatzen duen dokumentazioa.

Kasu horretan, eskatutako dokumentazioa aurkeztu beharko dute lizitatzaileek, gehienez ere zazpi (7) egun balioduneko epean. Aurkeztutako dokumentazioan zuzendu daitezkeen akatsak edo omisioak badaude, gehienez ere hiru egun balioduneko epea emango da akatsa zuzen dezan.

Epe horretan beharrezko dokumentazioa aurkezten ez bada, lizitatzailea prozeduratik kanpo geratuko da.

23. Esleipena.

Dokumentazioa jaso eta hurrengo bost egun baliodunetan esleitu beharko du kontratua kontratazio-organoak. Kontratazio-organoak erabakiko du esleipena, ebazpen arrazoituan**.**

Lizitatzaileei jakinaraztea - Esleipen-ebazpena lizitatzaileei jakinaraziko zaie, eskaintzak baloratzeko txostenarekin batera, hala badagokio.

Jakinarazpena bitarteko elektronikoen bidez egingo da, Ondarroako Udalaren lizitazio elektronikoko plataformaren bidez, agerraldi elektroniko bidezko jakinarazpen-sistemaren bidez.

Jakinarazpen eta komunikazioak agerraldi elektronikoko sistemaren bidez egiteko, interesdunak edo haren ordezkariak sarbidea izango du plataforman eskuragarri jarritako jakinarazpenaren edo komunikazioaren edukira, jarduketa honetarako onartutako identifikazio- edo sinadura-sistema elektronikoren bat erabili ondoren.
Jakinarazpenetik kontatzen diren epeak jakinarazpenaren abisutik zenbatuko dira, baldin eta jakinarazpenaren xede den egintza egun berean argitaratu bada kontratazio-organoaren kontratatzailearen profilean. Bestela, epeak zenbatzen hasiko dira interesdunak jakinarazpena jasotzen duenetik.

Esleipenaren publizitatea. Eskaintzak jakinarazi, esleitu eta balorazio-txostena egitearekin batera, kontratatzailearen profilean argitaratuko da.

24. Kontratua egitea.

Kontratua formalizatzen denean perfekzionatzen da. Kontratua kontratazio-organoaren egoitza dagoen lekuan egin dela ulertuko da.

25. Kontratua formalizatzea.

Kontratua lizitazioaren baldintzetara zehatz-mehatz egokitzen den administrazio-dokumentu batean formalizatu beharko da, eta dokumentu hori nahikoa titulu izango da edozein erregistro publikotan sartzeko. Hala ere, kontratua eskritura publiko bihurtzeko eska dezake kontratistak, eta gastuak bere kontura izango dira.

Kontratua formalizatzen duen dokumentuan ezin izango da inola ere sartu esleipenaren baldintzak aldatzea dakarren klausularik.

26. Formalizatzeko epea.

Kontratua hamabost egun balioduneko epean formalizatu beharko da, lizitatzaileek esleipenaren jakinarazpena jasotzen duten egunetik zenbatzen hasita.

Ezin izango da kontratua gauzatzen hasi aldez aurretik formalizatu gabe, salbu eta espedientea presaz edo urgentziaz izapidetzen bada.

27. Ez formalizatzearen ondorioak.

Esleipendunari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik kontratua legez ezarritako epeetan formalizatzerik ez badago, honako jarduketa hauek egingo dira:

- Lizitazioaren oinarrizko aurrekontuaren (BEZ kanpo)% 3ko zenbatekoa eskatzea, zigor gisa. Zenbateko hori, lehenik eta behin, behin betiko bermearen aurka ordainduko da, berme hori eratu bada, hargatik eragotzi gabe artikulu honen b) letran ezarritakoa. SPKL, 71.2.
- Kontratua hurrengo lizitatzaileari esleitzea, eskaintzak sailkatu diren hurrenkeraren arabera, aldez aurretik errekerimendua eginda eta 22. klausulan adierazitako dokumentazioa aurkeztuta.

Kontratua ez formalizatzeko arrazoiak Administrazioari egotzi ahal bazaizkio, berandutzeak sor diezazkiokeen kalte-galeren ordaina emango zaio kontratistari.

28. Aseguruak.

Kontratua formalizatu ondoren, esleipendunak agiri hau aurkeztu beharko du:

ASEGURU-ERAKUNDEAREN ZIURTAGIRIA, KONTRATISTAK SINATUTAKO ERANTZUKIZUN ZIBILEKO POLIZA INDARREAN DUELA EGIAZTATZEN DUENA.

Esleipendunak honako aseguru-poliza hauek kontratatuko ditu eta bere kontura mantenduko ditu kontratuaren iraunaldian eta berme-epean:

Erantzukizun zibileko asegurua, alderdi orokorretan edo ustiapenari, patronalari eta amaitutako lanei dagokienez, asegurutzat kontratista eta azpikontratista hartuta, hala badagokio.

Ustiapeneko erantzukizun zibilerako frankizia ezin izango da 10.000 eurotik gorakoa izan, eta ezbeharragatiko kalte-ordainaren gutxieneko muga honako hau izango da:

LIZITAZIOAREN PREZIOA (EURO)	*EZBEHARRAGATIKO KALTE-ORDAINEN GUTXIENEKO MUGA (EUROTAN)*
1.000.000 €-ra arte	*300.000*

Esleipendunak beti jasango ditu frankiziaren zenbatekoan eta aseguru-poliza desberdinetan ezarritako mugak gainditzen dituzten kalte eta galerak, bai eta poliza horietan estaltzen ez diren ondasun eta arriskuetan ere.
Aurreikusitako data baino beranduago amaitzen bada kontratua, beharrezko luzapenak kontratatuko dira, eta esleipendunak dagokion gainprima ordaindu beharko du.

II. ATALA
ZERBITZU-KONTRATUEN ONDOREAK, BETETZEA ETA AZKENTZEA

V.- KONTRATUAREN EXEKUZIOA.

29. Kontratua hastea.

Kontratua hasiko da Hasiera Akta sinatu eta hurrengo egunean,eta aktarik ez badago, berriz, kontratua formalizatuko den egunaren biharamunean.

Urgentziazko espedienteetan egiteko epea hasiko da kontatzen Administrazioak hasteko agindua ematen duenetik, eta agindurik ez bada, berriz, adjudikazioaren jakinarazpena jaso eta kontratistak behin betiko bermea eman eta biharamunetik.

30.- Kontratuaren arduraduna.

Kontratazio-organoak pertsona bat izenda dezake kontratuaren arduradun; haren ardura izango da zuzentzea eta ikuskatzea kontratatutako prestazioa nola exekutatzen den, eta horretarako, exekuzioa gainbegiratuko du, beharrezko

erabakiak hartuko ditu eta behar diren jarraibideak emango ditu hitzartutako prestazioa behar den moduan burutzen dela ziurtatzeko. Kontratuaren arduraduna eta bere laguntzaileak libre sartu ahal dira kontratupeko prestazioa burutzen den tokira eta kontratistak izendatuko duen pertsonak lagunduko die.

31. Lan-programa.

Baldintza teknikoen agirian hala eskatzen bada, kontratistak lan-programa bat eman beharko dio kontratuaren arduradunari, dagokion klausulan zehaztutako datuak eta informazioak jasoko dituena.

Lan-programa pleguetan eta, hala badagokio, eskaintzan ezarritako epeetara egokituko da (SPKLren 150. artikulua), eta kontratazio-organoak onartuko du.

32.- Kontratua betetzea.

Kontratua kontratistaren arrisku eta menturaz burutuko da.

Kontratua gauzatzeko, kontratista zorrotz lotu behar zaie baldintza teknikoen agiriari, lan-programari eta agiri honetan eta karatulan adierazitakoaren arabera kontratuaren osagai diren gainerako agirietan ezarritakoari, eta aintzat hartu behar ditu horiek gauzatzeko edo interpretatzeko Administrazioaren ordezkariak idatziz ematen dizkion jarraibideak.

Kontratuaren zehaztasunak ez ezagutzeak, kontratuari erantsitako agiriak (haren osagai baitira) edo Administrazioak onartutako jarraibide, klausula-agiri edo denetariko arauak ez du askatzen kontratista horiek guztiak bete beharretik.

Kontratista da, inondik inora, bere lanen kalitatearen arduraduna eta berak izango du ardura bere prestazioen eta zerbitzuen gainean. Eta kontratua burutzen duela, ez-egiteren baten ondorioz, akatsen edo metodo desegokien eraginez, edo behar den moduan amaitu ez duelako zerbait kaltegarria gertatzen baldin bada Administrazioarentzat edo hirugarren batentzat, bera izango da ondorioen erantzulea.

33.- Lan akastunak edo txarto exekutatuak (192 artikulua).

Karatulan ezarritako bermealdia igaro arte, enpresa kontratistak erantzukizuna du kontratatutako lanak behar bezala egin daitezen, bai eta haietan gertatzen diren akatsen erantzukizuna ere. Ez du erantzukizun horretatik salbuetsiko, eta eskubiderik ere ez dio emango, lanok egiten ari ziren bitartean administrazioaren ordezkariek aztertu edo ikuskatu izanak edo ontzat eman izanak, egiaztapen, balorazio edo ziurtagiri partzialetan.

Akatsa edo gaizki egindakoa administrazioak berak emandako agindu baten ondorio zuzena eta berehalakoa bada, kontratistak ez du lan akastun edo gaizki eginaren inolako erantzukizunik izango.

Kontratistak, berari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik, kontratuan zehaztutako prestazioen betearazpena partzialki bete ez duenean, administrazioak, kasuaren inguruabarrak kontuan hartuta, kontratua suntsiaraztea edo karatulan aurreikusitako zigorrak ezartzea aukeratu ahal izango du.

Kontratuaren xede den prestazioa oker betetzen bada, penalizazioak ezarriko dira honako terminoetan:

- Arau orokor gisa, zenbatekoa kontratuaren aurrekontuaren %1ekoa izango da. Salbuespen gisa, Kontratazio Organoak arau-haustea larria edo oso larria dela irizten badu, %5era bitartekoa izan daiteke edo legezko %10eko maximora bitartekoa, hurrenez hurren. Modu errepikatuan ez betetzea kontuan izango da larritasuna baloratzeko.
- Edozelan ere, penalizazioak ezartzeak ez dio kontratugileari legez okerrak zuzentzeko duen betebeharra kenduko.

34.- Epea betetzea eta entregatzeko tokia (193 artikulua).

Adjudikaziodunak bete behar du kontratuan bertan finkatu den epe guztia kontratua egiteko eta, hala badagokio, adierazitako ondorengo epe partzialak ere.

Enpresa kontratista berandutu egin dela adierazteko ez da beharrezkoa izango administrazioak aldez aurretik agindurik ematea.

Berandutza gertatu liteke bi era hauetakoren batengatik:

A) **Kontratistak, berari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik**, epe osoa edo epe partzialak betetzeko atzerapena izan badu, eta epe horiek betetzen berandutzeak arrazoiz pentsarazten badu ezin dela epe osoa bete, Administrazioak aukeran izango du kontratua suntsiaraztea edo egunero zigorrak ezartzea, kontratuaren prezioaren 1.000 euroko 0,60 euroko proportzioan (BEZa). Baztertuta), karatulan bestelako zigorrik ezarri ez bada. Berandutzagatiko zigorrak kontratuaren prezioaren 100eko 5eko multiplo batera iristen diren bakoitzean, BEZik gabe, kontratazio-organoak ahalmena izango du kontratua suntsiarazteko edo hura betearazten jarraitzeko, zigor berriak ezarrita. Azken kasu horretan, kontratazio-organoak kontratua amaitzeko beharrezkotzat jotzen duen epea luzatzea onartuko du. Zigorrak kontratistari ordainketa oso edo partzial gisa ordaindu beharreko kopuruetatik kenduko dira, edo, ordainketatik kendu ezin direnean, eratu den bermetik.

B) Zerbitzuek beren exekuzioan atzerapenik izanez gero, betiere atzerapen hori **kontratistari egotzi ezin bazaio eta kontratistak**, hasierako exekuzio-epea luzatzen bazaio, bere konpromisoak betetzea eskaintzen badu, kontratazio-organoak emango dio, eta epea, gutxienez, galdutako denboraren berdina izango da, non eta kontratistak ez duen beste epe laburrago bat eskatzen, SPKLren 195.2 artikuluan ezarritakoaren arabera, eta baldintzak eta izapideak arautuko dira, 100. artikulua Kontratuaren arduradunak txosten bat egingo du, eta bertan zehaztuko du atzerapena kontratistari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik gertatu den.

Kontratua partzialki betetzen ez bada, edo exekuzioa behar bezala betetzen ez bada, edo atzeratzen bada, eta zigorra ezarrita ez badago, edo betearazpenak Administrazioari eragindako kalteak estaltzen ez baditu, kontratistari kalte-galerengatiko kalte-ordaina eskatuko zaio.

35.- Prezioaren ordainketa(198 artikulua)

Kontratistak eskubidea du lanak burutu ahala hitzartutako prezioaren ordainketa jasotzeko, egindako hitzarmenarekin bat etorriz eta Administrazioak emandako aginduekin bat.

Agiri honetako karatulak finkatuko du kontratuaren ordainketa erregimena eta ordainketa egingo da, behin kontratuaren prestazioa burutu dela, dena batera edo zatika, kontura egindako ordainketen bidez edo, segidako traktuko kontratuak baldin badira, aurrez hitzartutako mugaegun bakoitzean.

Ordainketa egingo da kontratistak emandako FAKTURA ELETRONIKOAREN kontra indarreko arautegiarekin bat eginik.

Ordainketak kontura egindako ordainketa dira; beraz, azken ziurtagirian eginiko aldaketen eta zuzenketen menpe egongo dira eta, inolaz ere, ez dute esan nahi kontratua onartua eta jasoa denik.

Administrazioak hogeita hamar eguneko epean ordaindu beharko du prezioa, emandako zerbitzuen kontratuan xedatutakoarekin bat datozela egiaztatzen duten agiriak onartzen diren egunetik zenbatzen hasita, eta, berandutuz gero, kontratistari ordaindu beharko dizkio, hogeita hamar eguneko epe horretatik aurrera, berandutze-interesak eta kobrantza-kostuen kalte-ordaina, abenduaren 29ko 3/2004 Legean aurreikusitako baldintzetan.

Eragiketetan berankortasunaren aurka borrokatzeko neurriak ezartzen dituena Kontratistak, aldez aurretik idatziz eskatuta, eskubidea izango du kontratua hastean konturako ordainketak jasotzeko, kontratua gauzatzeko prestaketa-eragiketen zenbatekoan. Nolanahi ere, bermea abal gisa edo legeak onartutako beste baten bidez eratzeko eskatuko zaio.

Bestalde, administrazioaren aurrean kobratzeko eskubidea duten kontratistek laga ahal izango dute, zuzenbidearen arabera, eta ezinbesteko baldintza izango da administrazioari lagapen-erabakia modu sinesgarrian jakinaraztea.

Kobratzeko eskubidea sorrarazten duen harreman juridikoa sortu aurreko lagapenek ez dute ondoriorik izango Administrazioaren aurrean. Nolanahi ere, Administrazioak lagapen-hartzailearen aurka jarri ahal izango ditu kontratu-harremanaren ondoriozko salbuespen kausal guztiak. (200. artikulua).

Kontratistak kreditu-lagapena kontratatzen badu: berariaz debekatuta dago factoring-eragiketak formalizatzea, kontratu honetatik eratorritako eragiketak finantzatzeko baliabiderik gabe.

36. Faktura elektronikoa

Fakturak egin eta udalari igortzeko formatu elektronikoa erabili beharko du kontratugileak.

Kontratugileak fakturazio elektronikorako sistema propiorik ez badu, udal webgunearen bitartez eskuragarri izango du faktura elektronikoa egiteko tresna, baita PDF-417 espezifikazioaren arabera sortutako autentifikazio-marka grafikoak dituen dokumentua ere. Horrela, espedienteari dagokion unitate administrazioak eta berau konfirmatzeko ardura duen funtzionarioak "facturae 3.2." formatu elektronikoan jasoko dute faktura.

Kontratugileak fakturazio elektronikorako sistema badauka, Zerga Agentziak darabilen "facturae 3.2." formatua erabili beharko du ezinbestean.

Egoera bietan, sinadura elektroniko aurreratuarekin izenpetutako faktura elektronikoak baino ez dira onartuko. Sinadura elektronikoak aitortutako agiri batean oinarritua egon beharko du eta sinadura sortzeko gailu seguruaren bitartez sortua izan beharko du.

37.- Prezioak berraztertzea.

Prezioak, hala badagokio, SPKLren 103. artikuluan ezarritakoaren arabera berrikusiko dira, baita baldintza-agiri honen karatulan ezarritakoaren arabera ere.

Kontratuari aplikatuko zaion indizea edo formula ez da aldatuko kontratuaren indarraldi osoan eta horren arabera zehaztuko da prezioen berrikuspena, kontratuaren adjudikazio eguna kontuan hartuta.

38.- Laneko eta gizarteko betebeharrak.

Kontratistak lan-arloan eta gizarte-segurantzaren arloan indarrean dagoen araudia bete beharko du.

Era berean, azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretua (desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko Lege Orokorraren testu bategina onartzen duena), martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoa (emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarriari buruzkoa), azaroaren 8ko 31/1995 Legea (laneko arriskuen prebentzioari buruzkoa) eta prebentzio-zerbitzuen erregelamendua (Errege Dekretuak onartua) bete beharko ditu. 39/1997 Dekretua, urtarrilaren 17koa, bai eta Enpresa kontratistak aplikatu beharreko hitzarmen kolektiboan ezarritako arauak eta baldintzak bete beharko ditu kontratua gauzatzen den aldi osoan, baina, nolanahi ere, esleipendunak langileen soldata-baldintzak bete beharko ditu, aplikatzekoa den sektoreko hitzarmen kolektiboaren arabera (122.2 art.).

Lehenengo paragrafoan aipatutako betebeharrak ez betetzeak, eta, bereziki, soldatak ordaintzean behin eta berriz gertatzen diren ez-betetzeek edo atzerapenek, edo hitzarmen kolektiboetatik eratorritakoak baino soldata-baldintza txikiagoak aplikatzeak, larriak eta dolozkoak badira, 192. artikuluan (201. artikulua) aipatzen diren zigorrak ezartzea ekarriko du.

Esleipendunaren kontura izango da, soil-soilik, kontratazioaren xede den zerbitzua emateko erabiltzen dituen langileen ordainsaria, eta bere kargura izango dira gizarte- eta/edo lan-arloko kostu guztiak, indarrean dagoen legeria eta hari eragiten dioten hitzarmenak betez. Udala erabat salbuetsita egongo da kontratistaren eta bere langileen arteko harremanen gaineko erantzukizunetik.

Kontratua amaitzen denean, kontratuaren xede diren lanak egin dituzten pertsonak ezin izango dira inola ere finkatu, hala nola sektore publiko kontratatzaileko ente, organismo edo erakundeko langileak.

Kontratazioaren xede den zerbitzuari eragiten dion lan-grebaren kasuan, esleipendunak kontratazio-organoaren errekerimendua jaso beharko du, hark adierazitako epean eta moduan, administrazio eskudunak zehazten dituen ezinbesteko gutxieneko zerbitzuak bermatzeko konponbideak eskaintzeko. Esleipendunak soluzio horiek eskaintzen ez baditu edo gauzatzen ez baditu, kontratuaren zuzendaritzak beharrezkotzat jotzen dituen kontratuak sustatu ahal izango ditu onartutako gutxieneko zerbitzuak betetzeko. Zerbitzu horiek esleipendunaren kontura izango dira, eta, beraz, fakturaziotik kontratu horien zenbatekoa kenduko da. Hirugarrenei kontratatutako lan horien ondoriozko erantzukizuna, ordea, esleipendunarena izango da, agiri honetan jasotako ondorio guztietarako.

39. Baliabide materialak eta giza baliabideak.

Kontratugileak, kontratuan hitzartutako epeen barruan zerbitzu edo prestazioa egoki gauzatzeko, beharrezkoak diren ekipo edo balabide osagarriak eman eta mantendu behar ditu, bereziki, kontratua gauzatzeko arduradunen zerrendan jasotako epeei dagokienean.

Enpresako langileak kontratistaren menpe egongo dira bakarrik, eta horrek soilik izango ditu, enplegatzailea den aldetik, dagozkion eskubideak eta betebeharrak.

Enpresak, gainera, ezin izango ditu eskaintzan finkatutako langileak aldatu Administrazioak horretarako baimenik eman gabe.

Administrazioak gaitzesti dezake ezegoki iritzitako edozein elementu; enpresak, berriz, eskubidea du ebazpen horren aurka erreklamazioa aurkezteko Administrazioaren aurrean, hamar egun naturaleko epea izango du horretarako Administrazioak idatzizko jakinarazpena egingo dion momentutik.

40.- Kontratua betearazteko hizkuntza-baldintzak.

Kontratuaren xedeak ekarritako emaitza (hala nola: azterlanak, txostenak, proiektuak….) bi hizkuntza ofizialetan ekarriko da, baldin eta:

- Aurreikusten bada herritarren artean zabalduko dela, osorik edo zati batean, edo
- Kontratuaren jasotzailea haurrak ego gazteak izan behar badira.

Kontratuaren xede den emaitza prestatzeko herritarrekin harreman zuzena duten jarduerak egin behar badira, herritarrak aukeratutako hizkuntza ofiziala erabili beharko da, eta bi hizkuntza ofizialen erabilera bermatu beharko da harreman horren oinarri diren euskarri edo jarduera guztietan (inkestak, galdetegiak, eztabaida-taldeak …). Horretarako, kontratistak edo azpikontratistak, herritarrekin zuzeneko harremana duten eginkizunak betetzeko, euskaraz egiteko gaitasuna duten langileen kopuru egokia erabili beharko du.

Era berean, gaztelania eta euskara berdintasun osoz erabili beharko dira kontratuaren xede den jarduerari lotutako eskuhartze publikoetan.

Esleipendun berriak subrogatu behar badu iraungitako kontratuari atxikitako langile-kolektiboarekiko lan-harremanetan, eta kolektibo horrek ez badu hizkuntza-gaitasunik kontratu-klausulen pleguetan arlo horretan ezarritako baldintzak betetzeko, esleipendun berriak bete beharko ditu egin behar dituen subrogatutako langileen ordezkapenak kontratu horri eska dakiokeen euskararen ezagutza eta erabilera betetzen duten pertsonekin.

Herritarrei zerbitzuak ematea dakarten kontratuetan, kontratistak euskara eta gaztelania erabili beharko ditu errotulazioan, megafonia bidezko komunikazioetan, erabilera-jarraibideetan, etiketetan eta ekoizten dituen produktuen enbalajean eta zerbitzua emateak sortzen dituen dokumentuetan.

41. Gauzatze Baldintza Bereziak

1. Langabeziak bereziki kaltetutako kolektiboak enplegatzea sustatzeko baldintzak.

1.1.Kontratua gauzatzeko beharrezko langileen kontratazio berrietan, enpresa kontratistek lehentasuna emango diete legezko langabezia egoeran dauden pertsonei, ekainaren 20ko 1/1994 Legegintzako Errege Dekretuaren, Gizarte Segurantzako Lege Orokorraren Testu Bategina onartzen duenaren, 208. artikuluan aurreikusitakoaren arabera. Hala, bermatu beharko dute egiten diren kontratazio berrien %15 gutxienez kolektibo horietako pertsonei egingo zaiela, garatu beharreko lanaren ezaugarri konkretuengatiko ezintasuna justifikatzen denean salbu.

Kontratugileak kontratua gauzatzeko egindako kontratazio berriak egiaztatu beharko ditu, baita langabeziak bereziki kaltetutako kolektiboetako pertsonei dagozkien kontratazioak ere, eta hartarako beharrezko dokumentazioa aurkeztu beharko du: izena, abizenak, NAN eta Gizarte Segurantzan alta eginda eta afiliatuta egotearen egiaztagiria.

Kontratatzeko betebehar hau bertan behera gera liteke, baldin eta kontratuaren esleipenak berekin langileen subrogazioa badakar edo kontratu berrian kontratazio berririk behar ez bada.

Eskatutako dokumentazioa aurkeztu ezean edo, klausulan jasotakoaren arabera, legez langabezia egoeran dauden pertsonak kontratatzeko betebeharra konplitu ezean, kontratua hautsi dela ulertuko da eta kontratuaren aurrekontuaren %10eko penalizazioa ezarriko da.

1.2. Lortu beharreko prestazioen ezaugarriak kontuan hartuta hori posible denean, enpresa esleipendunak kontratuaren zati bat egiteko azpikontratazioa egin behar badu, ahal dela abenduaren 4ko 2273/1985 Errege Dekretuan aurreikusitako Enplegu Zentro Berezien Erregistroan edo Gizarteratze Enpresen Erregistroan inskribatutako erakundeekin egingo du, abenduaren 13ko 44/2007 Legean xedatutakoa betez. Laneratzeko enpresak; edo, bestela, bazterketa-arriskua duten pertsonak gizarteratzeko lan egiten duten irabazi-asmorik gabeko erakundeak

2. Gizarte bermeari buruzko baldintzak

Lan-baldintzak betetzeari buruzko baldintzak

Enpresa kontratista indarreko xedapenak betetzera behartuta dago lan, gizarte segurantza eta laneko segurtasun zein osasun gaietan. Halaber, bereziki, garatu beharreko prestazioak lan arloko ordenantzaren edo hitzarmen kolektiboaren menpe daudenean, kontratugileak lan arloko ordenantzan eta dagokion hitzarmen kolektiboan jasotako xedapenak bete beharko ditu ezinbestean.

Enpresa kontratistak aplikatu beharreko hitzarmen kolektiboan ezarritako arauak eta baldintzak bete beharko ditu kontratua gauzatzen den aldi osoan, baina, nolanahi ere, esleipendunak langileen soldata-baldintzak bete beharko ditu, aplikatzekoa den sektoreko hitzarmen kolektiboaren arabera (122.2 art.).

Enpresa esleipendunak egiaztatu beharko du, dagozkion erantzukizunpeko aitorpenen bidez edo, hala dagokionean, erakunde eskudunaren agiri bitartez, kontratua gauzatzeko orduan aplikagarri diren indarreko xedapenetatik eratorritako betebeharrak konplitu direla lanpostuen babesari, lan-baldintzei eta laneko arriskuen prebentzioari dagokionean.

Betebehar hori konplitu ezean kontratua hautsi dela ulertuko da eta kontratuaren aurrekontuaren %10era arteko penalizazioa ezarriko da.

Gutxieneko lan-baldintzei eta subrogazioari lotutako baldintzak (130. art.).

Lege-arau batek, hitzarmen kolektibo batek edo eraginkortasun orokorreko negoziazio kolektiboko akordio batek esleipendunari lan-harreman jakin batzuetan enplegatzaile gisa subrogatzeko betebeharra ezartzen dionean, subrogazioak eragiten dien langileen kontratuen baldintzei buruzko informazioa emango zaie lizitatzaileei, neurri horrek eragingo dituen lan-kostuak zehatz-mehatz ebaluatu ahal izateko beharrezkoa bada.

Informazio hori 130. artikuluan aurreikusitakoa betez emango da. SPKL, eta Eusko Legebiltzarraren apirilaren 7ko 3/2016 Legeak, kontratazioan zenbait klausula sozial sartzeari buruzkoak, 6.1 artikuluan ezarritakoa betez. SPKLren 130. artikuluan eta Kontratazio publikoan klausula sozial jakin batzuk sartzeko Eusko Legebiltzarraren apirilaren 7ko 3/2016 Legearen 6.1 artikuluan aurreikusitakoa betez, lege-arau, hitzarmen kolektibo edo eraginkortasun orokorreko negoziazio kolektiboko akordio bidez subrogatzeko betebeharrari buruzko informazioa karatulan jasotzen da.

Kontratu honen esleipendun den enpresak, eraginpeko langileen enplegatzaile den aldetik, lehen aipatutako informazioa eman beharko du, kontratuaren arduradunak hala eskatuta. Nolanahi ere, informazioaren zati gisa, subrogazioaren xede diren langileen zerrendak aurkeztu beharko dira, honako hauek adierazita: aplikatu beharreko hitzarmen kolektiboa, kategoriaren xehetasunak, kontratu mota, lanaldia, antzinatasun-data, kontratuaren epemuga, langile bakoitzaren urteko soldata gordina, eta subrogazioak eragiten dien langileei aplikatu beharreko indarreko itun guztiak.

Subrogazioa egin ondoren, lan-kostuak kontratista zaharrak kontratazio-organoari emandako informaziotik ondorioztatzen direnak baino handiagoak badira, kontratistak akzio zuzena izango du kontratista zaharraren aurka.

Era berean, eta urriaren 23ko 2/2015 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Langileen Estatutuaren Legearen testu bateginaren 44. artikuluan ezarritakoa aplikatzeari kalterik egin gabe, kontratistak subrogazioak eragindako langileei

ordaindu gabeko soldaten erantzukizuna hartu beharko du, baita sortutako Gizarte Segurantzako kotizazioena ere, kontratua suntsiarazten bada ere, eta Kontratista berria, baina betebehar hori ez dagokio inola ere kontratistari Kasu horretan, Administrazioak, aipatutako soldatak ordaindu ez direla egiaztatuta, kontratistari zor zaizkion zenbatekoak atxikiko ditu, soldata horiek ordainduko direla bermatzeko, eta ez du behin betiko bermea itzuliko, horiek ordaindu direla egiaztatzen ez den bitartean.

Enpresa kontratistak konpromisoa hartzen du Ondarroako Udalak kontratuaren xede den jarduera egiten duten langileei benetan aplikatzen zaizkien lan-baldintzei buruz eskatzen duen informazio guztia emateko kontratua gauzatzen den bitartean. Betebehar horiek ez betetzea arau-hauste arintzat jotzen bada, kontratuaren aurrekontuaren% 10erainoko zigorra ezarriko da.

Arau-hauste larritzat kalifikatutako ez-betetzea kontratua suntsiarazteko eta kontratatzeko debekua deklaratzeko arrazoia izango da.

Azpikontratazioari buruzko baldintzak.

Azpikontratazioaren kasuan, kontratista nagusiak bere gain hartzen du kontratua Administrazioaren aurrean betearazteko erantzukizun osoa, administrazio-klausula zehatzen pleguen eta kontratuaren baldintzen arabera, gizarte- edo lan-arloko betebeharrak betetzea barne.

Arau-hauste larritzat kalifikatutako ez-betetzea kontratua suntsiarazteko eta kontratatzeko debekua deklaratzeko arrazoia izango da.

Araudia betetzeari buruzko baldintzak, lan arloko harreman indibidual eta kolektiboei dagokienez.

Enpresa kontratistak Gizarte Arloko Arau-hauste eta Zehapenei buruzko Legearen (GAAZL) (abuztuaren 4ko 51/2000 Legegintzako Errege Dekretuak onartutakoa) 6 edo 7. artikuluetan tipifikatutako lan arloko harremanen inguruko arau-hausteren bat egiten badu, gai honetako agintaritza eskudunak zigorra ezarriko dio bide administratiboko zehapen irmoaren bitartez. Zehapen hori kontratu-haustura gisa sailkatuko da; kontratuaren aurrekontuaren %5eko penalizazioa ekarriko du kontratu-hauste arinagatik ezartzen denean (6. artikulua) eta %10ekoa kontratu-hauste larriagatik ezartzen bada (7. artikulua).

Kontratua gauzatzeko orduan, GAAZLaren 8. artikuluan tipifikatuta dagoen kontratu-hauste oso larriagatik zigorra ezartzen denean, kontratuaren funtsezko baldintza bat bete ez dela ulertuko da eta kontratugileak kontratua deuseztatzeko aukera izango du, behin zehapena bide administratiboan irmotzat jotakoan.

Kontratugileak, halaber, unean-unean jakinarazi beharko dizkio kontratuaren arduradunari kontratua gauzatu bitartean lan-arriskuen prebentzioari dagokionez ezarri zaizkion zehapenak, eta haren kontra aurkeztutako balizko errekurtsoen berri eman beharko dio, baita jasotako ebazpenen berri ere. Informazioa emateko betebehar hori konplitzen ez bada, kontratuaren funtsezko baldintza bat bete ez dela ulertuko da, eta kontratugileak, zehapen irmoaren ondoren, kontratua deuseztatzeko aukera izango du.

Laneko arriskuen prebentziorako araudia beteteari buruzko baldintzak.

Enpresa kontratatzaileak Gizarte Arloko Arau-hauste eta Zehapenei buruzko Legearen (GAAZL) (abuztuaren 4ko 51/2000 Legegintzako Errege Dekretuak onartutakoa) 11 edo 12. artikuluetan tipifikatutako laneko arriskuen prebentzioaren inguruko arau-hausteren bat egiten badu, gai honetako agintaritza eskudunak zigorra ezarriko dio bide administratiboko zehapen irmoaren bitartez. Zehapen hori kontratu-haustura gisa sailkatuko da; kontratuaren aurrekontuaren %5eko penalizazioa ekarriko du kontratu-hauste arinagatik ezartzen denean (11. artikulua) eta %10ekoa kontratu-hauste larriagatik ezartzen bada (12. artikulua).

Kontratua gauzatzeko orduan, GAAZLaren 13. artikuluan tipifikatuta dagoen kontratu-hauste oso larriagatik zigorra ezartzen denean, kontratuaren funtsezko baldintza bat bete ez dela ulertuko da eta kontratugileak kontratua deuseztatzeko aukera izango du, behin zehapena bide administratiboan irmotzat jotakoan.

Kontratugileak, halaber, unean-unean jakinarazi beharko dizkio kontratuaren arduradunari kontratua gauzatu bitartean lan-arriskuen prebentzioari dagokionez ezarri zaizkion zehapenak, eta haren kontra aurkeztutako balizko errekurtsoen berri eman beharko dio, baita jasotako ebazpenen berri ere. Informazioa emateko betebehar hori konplitzen ez bada,

kontratuaren funtsezko baldintza bat bete ez dela ulertuko da, eta kontratugileak, zehapen irmoaren ondoren, kontratua deuseztatzeko aukera izango du.

3. Emakume eta gizonaren arteko berdintasunerako baldintzak.

3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirakoa.

- 1/2023 LEGEGINTZAKO DEKRETUA, martxoaren 16koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duena: 22. Artikulua.
- Ondarroako emakumeen eta gizonen berdintasunerako Udal Plana.

- 1/2023 LEGEGINTZAKO DEKRETUA, martxoaren 16koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duena, eta 3/2007 Lege Organikoan, martxoaren 22koan, emakumeen ta gizonen arteko berdintasun eragingarrirakoan, ezarritako printzipioak eta betekizunak betetzea.
- Dokumentazio, publizitate, irudi edo material orotan, ez da hizkera sexista erabiliko, ezta emakumeen diskriminazioa edo estereotipo sexistarik erakusten duen irudirik ere. Halaber, balio hauek sustatu behar dira emakumeen irudiari dagokionez: berdintasuna, ordezkaritza orekatua, aniztasuna, baterako erantzukizuna eta genero rolen eta identitateen aniztasuna.
- 50 langiletik gorako enpresek egiaztatu egin beharko dute emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako plana diseinatu eta benetan aplikatu dutela, 3/2007 Legean, martxoaren 22koan, emakumeen eta gizonen arteko berdintasun eragingarrirakoan, ezarritakoari jarraiki. 6/2019 Errege Lege Dekretua, martxoaren 1ekoa, Enplegu eta lanaren arloan emakumeen eta gizonen arteko tratu- eta aukera-berdintasuna bermatzeko presako neurriena, aurreko Lege Organikoa aldatzen duena eta 1/2023 LEGEGINTZAKO DEKRETUA, martxoaren 16koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duena (art. 43.1).
